



EBAZPENA, 2021EKO IRAILAREN 15EKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, LANPOSTURA EGOKITZEKO BERARIAZKO TUTORETZEI BURUZKO JARRAIBIDEAK EMATEN DITUENA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEENTZAT.

Justizia Administrazioako langileek sarri aldatzen dute lanpostua, lekualdatze-lehiaketen, oposizioen, aldi baterako ezintasunen eta abarren ondorioz. Horrelakoetan, askotan, Justizia Administrazioan esperientziarik ez duten edo lanpostuaren jurisdikzio edo bulegorako esperientzia ez duten langile berriak sartzen dira eta, orduan, disfuntzioak sortzen dira sartzen diren organo edo zerbitzuan, ezagutza espezifikorik ez dutelako.

Kalte horiek arintzeko asmoz, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak prestakuntza-jarduera batzuk ezarri ditu eta, horien artean, lanpostuko tutoretzen programa bat, Justizia Administrazioan dagoen ezagutza aditua eta praktikoa sustatzeko eta zabaltzeko.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak Justizia Administrazioako Zuzendaritzari ematen dizkio Justizia Administrazioako langileen prestakuntzari lotutako eginkizunak. Hori kontuan hartuta, ebazpen hau eman da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako langileak lanpostura egokitzeko berariazko tutoretzei dagokienez.

Lehena.- Helburua

Lanpostuko tutoretza prestakuntza pertsonalizatua da eta, horren bidez, lanpostu batean hasten diren funtzionarioek (karrerakoek edo bitartekoek) lanpostuko jurisdikzio, espezializazio edo arlo jakin bati dagokion tutoretzapeko prestakuntza eskatu ahal izango dute.

Bigarrena.- Tutorea

Funtzionarioek (karrerakoek edo bitartekoek) emango dituzte tutoretzak. Funtzionario horiek tutoreak izango dira, eta honako baldintza hauek bete behar izango dituzte:

- a) Prestakuntza jasoko duen funtzionarioak betetzen duen lanpostua baino goragoko kidegoko edo kidego bereko lanpostu batean egin beharko du lan.
- b) Oro har, gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatu beharko du dagokion jurisdikzioan, espezializazioan edo arloan.

Salbuespenezko kasuetan, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak baimendu dezake prestakuntza ematen duen pertsonak aipatu baldintzetakoren bat ez betetzea. Hori gertatzen denean, organoko edo bulegoko arduradun funtzionalari txostena egiteko eskatuko zaio.

Nolanahi ere, tutoretzak borondatez eman behar dira.

Hirugarrena.- Prestatu beharreko pertsona: tutoretza jasotzen duena

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako kidego batean lan egiten duen funtzionarioak (karrerakoak edo bitartekoak) eska dezake prestakuntza hori, tutoretza eskatzen duenean edo tutoretzan zehar.

Tutoretza-eskaeraren aurreko lau urteetan, tutoretza jasotzen duen pertsonak ezin izan du lan egin jurisdikzioan, espezializazioan edo arloan, lau hilabetetik gora jarraian edo zortzi hilabetetik gora aldizkako aldietan; horrez gain, ezin izan du aldez aurretik tutoretza jaso.

Laugarrena.- Iraupena eta ordutegia

Tutoretzak lanaldiaren barruan egingo dira, eta bi alditan egingo dira:

- a) Hasierako hamabost egunetan, tutoretza jasotzen duen pertsonak eta tutoreak beren eginkizunak beteko dituzte, tutoretza jasotzen duen pertsonak beharrezko ezagutzak eskura ditzan, hasieran, behaketaren bidez eta, ondoren, eguneroko zereginak eginez. Baina beti izango du tutorearen laguntza.

- b) Ondoren, hilabeteko epean, tutoretza jasotzen duen pertsonak ikasitako zereginak egingo ditu, tutoreak aldi behin gainbegiratuta. Epe hori igaro ondoren, zereginak bere kabuz egiteko moduan dagoela ulertuko da.

Tutoretzaren hasieran, bilera bat egingo dute tutoretza jasoko duen pertsonak lan egingo duen organo edo bulegoko arduradun funtzionalak, tutoreak eta tutoretza jasotzen duen pertsonak, tutoretza garatu bitartean jarraitu beharreko gidalerroak prestatzeko.

Astero jarraipen-bilerak egingo dituzte tutoreak eta tutoretza jasotzen duen pertsonak, tutoretzaren garapena eta aurrerapen-maila aztertzeko.

Hamabost egunean behin, organo edo bulegoko arduradun funtzionala ere egongo da jarraipen-bileretan, tutoretza jasotzen duen pertsonaren aurrerapen-mailaren berri izan dezan eta ikaskuntza optimoa lortzeko beharrezkotzat jotzen dituen ekintzak proposa ditzan.

Bosgarrena.- Baimenak tutoretza egiten den bitartean

1.- Prestakuntza hau behar bezala aprobetxatzeko oztopo izan daitekeen edozein inguruabar minimizatzeko, tutoretza emateko eskaeretan konpromiso jakin bat eskatuko zaie bai tutoreari bai tutoretza jasotzen duen pertsonari: lehen hamabost egunetan gehienez bi egun balioduneko baimena hartuko dutela.

Era berean, tutoreak eta tutoretza jasotzen duen pertsonak gehienez 5 egun balioduneko baimena edo oporrak hartuko dituzte hasierako aldiaren hurrengo hilabetean zehar.

Baimen-egun edo opor-egun horietakoren bat hartzen badute, egun horiek hartzen diren prestakuntza-aldiaren iraupena luzatu egingo da, hartu den baimenaren/oporraldiaren baliokidea den denbora gehitu beharko zaiolako.

Hala ere, salbuespenezko kasuetan, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak beste baimen-egunen bat hartzeko baimena eman ahal izango du.

2.- Tutoretzan zehar, tutoretza jasotzen duen pertsonak gaixotasunagatiko lizentzia hartzen badu, tutoretza eten egingo da, egoera horretan dagoen bitartean, eta berriro ekingo zaio lan-jardueran hasten den unean. Kasu horretan, amaitu arte geratzen den denbora osatu beharko da.

Baina tutoreak gaixotasunagatiko lizentzia hartzen badu, kasu zehatz bakoitzean egoera aztertu eta baloratuko da, tutoretza jasotzen duen pertsonaren prestakuntzan ahalik eta eragin txikiena bermatze aldera erabaki egokiena hartu dadin.

Seigarrena.- Eskaera

Tutoretza-eskaera egin nahi duenak horretarako inprimakia bete beharko du. Enpleguaren Atarian egongo da inprimaki hori. Gero, beheko aldean adierazten den helbidera bidali beharko da inprimakia, posta elektronikoz.

Eskaera egiteko gehienez ere hamabost egun baliouduneko epea dago, tutoretza eskatzen den lanpostuan hasten den egunetik zenbatzen hasita.

Justizia Administrazioako Zuzendaritzan eskaera jaso ondoren, zuzendariak ebazpena emango du eskaera onartzeko edo ukatzeko. Azken kasu horretan, ukatzeko arrazoiak azalduko dira.

Tutoretzak hasi ahal izateko, tutoretza baimentzeko ebazpena jakinarazi beharko zaie interesdunei.

Zazpigarrena.- Tutoretzak ematea

Pertsona bakarrari emango zaizkio tutoretzak. Hala ere, une berean organo edo bulego batera bi pertsona iristen badira eta biek tutoretza eskatzeko baldintzak betetzen badituzte, tutoretza bateratua eskatu ahal izango dute.

Zortzigarrena.- Zerbitzu-sariak

Ordainsari ekonomikoei dagokienez, tutore gisa jarduten duen pertsonak 150 euro jasoko ditu tutoretzako lehen 15 egun trinkoengatik, pertsona bakar bati ematen badio tutoretza, eta 200 euro bi pertsonari tutoretza ematen badio.

Horrez gain, hurrengo hilabetean egindako jarraipen- eta gainbegiratze-lanengatik, 200 euro ordainduko zaizkio pertsona bakar baten tutoretza egiten bada, eta 300 euro tutoretza bi pertsonak egiten badute.

Beraz, tutoretza osoa (hilabete eta erdiko prestakuntza, prestakuntza hasten denetik) 350 eurokoa izango da pertsona bakar baten tutore gisa jarduten duen pertsonarentzat, edo 500 eurokoa, bi pertsonaren tutoretza egiten bada.

Tutoretza amaitu baino lehen tutoretza jasotzen duen pertsonak kargua uzten badu, hasierako 15 eguneko aldiari dagokion zenbatekoa beti ordainduko da, kargua uzten duen eguna edozein izanda ere.

Baina, tutoretzaren bigarren aldian uzten badu kargua, tutoreari, lehenengo aldiko 150 euroez gain (edo 200 euro, hala badagokio), kargua utzi arte emandako tutoretzari dagokion zati proportzionala ordainduko zaio.

Azken xedapena.- Indarreen jartzea

Ebazpen hau Justiziako enplegatuaeren atarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarreen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 15a

JON ARTURO URIARTE UNZALU
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA